

@@@AGINDUA, 2011ko urriaren 3koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Gasteizko (Araba) «Urkide» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Lehen Hezkuntzan unitateak gehitzeko baimena emateko dena.@@@

Gasteizko (Araba) «Urkide» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non baimena eskatzen baita Lehen Hezkuntzako unitate bat gehitzeko

Espediente hori Arabako Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); 132/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete behar dituzten derrigorrezko baldintzak ezartzen dituen (2010eko martxoaren 12ko BOE); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Jarraian zehazten den ikastetxe pribatuari baimena ematen zaio Lehen Hezkuntzako unitate bat gehitzeko, 2011-2012 ikasturtetik aurrera:

Kode-zenbakia: 01001231.

Izen espezifikoak: «Urkide».

Titularra: Colegio Urkide Ikastetxea, Sociedad Cooperativa.

Helbidea: Magdalena 8.

Udalerrria: Vitoria-Gasteiz.

Lurralde historikoa: Araba.

Baimena: Lehen Hezkuntzako unitate 1 gehitzea, 25 ikaspostukoa.

Ikastetxearen osaera:

- Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 225 ikaspostu.
- Lehen Hezkuntza: 19 unitate, 475 ikaspostu.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 12 unitate, 360 ikaspostu.
- Hezkuntza Berezia: 3 unitate.
- Batxilergoko modalitateak: "Zientziak eta Teknologia" eta "Humanitateak eta Gizarte Zientziak"; 8 unitate, 280 ikaspostu.
- Lanbide Heziketa.
 - Familia: Gorputz eta Kirol Ekintzak.
 - Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

2. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 3a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.